

Zenbait aditzen erabilera oker edo badaezpadakoak

baimendu

usaindu

agurtu

ezagutu

ikasi

mugatu



Baimendu

- *Ikertzen ari garen kolektiboaren oso gertuko ikuspen bat *baimentzen digu* horrek.
- *Sekuentziadoreak *baimentzen digu* genoma bera irakurtzea eta birus bakoitzean agertzen diren genotipoak aztertzea.
- *Guztiz integratutako gehigarri kudeatzaileak beste batzuek garatutako gehigarriak ere ikusi, kudeatu eta ezgaitzea *baimentzen digu*.
- *Giza genoma deszifratzeko ahaleginek, polimorfismo genetiko berrien eta analisisetarako ikuspuntu antropogenetiko batetik ahalmen handia duten tekniken garapena *baimendu izan dute*.

Baimendu

- *Ikertzen ari garen kolektiboaren oso gertuko ikuspen bat *baimentzen digu* horrek.
- *Sekuentziadoreak *baimentzen diu* genoma bera irakurtzea

Baimendu aditzak baimena ematea adierazten du, eta ez zerbait lortzeko bidea.

baimentzen digu.

- *Giza genoma deszifratzeko ahaleginek, polimorfismo genetiko berrien eta analisisetarako ikuspuntu antropogenetiko batetik ahalmen handia duten tekniken garapena *baimendu izan dute.*

Baimendu

- *Ikertzen ari garen kolektiboaren oso gertuko ikuspen baterako *baimena ematen digu* horrek.
- *Sekuentziadoreak *baimena ematen digu* genoma bera irakurtzeko eta birus bakoitzean agertzen diren genotipoak aztertzeko.
- *Guztiz integratutako gehigarri kudeatzaileak beste batzuek garatutako gehigarriak ere ikusi, kudeatu eta ezgaitzeko *baimena ematen digu*.
- *Giza genoma deszifratzeko ahaleginek, polimorfismo genetiko berrien eta analisietarako ikuspuntu antropogenetiko batetik ahalmen handia duten tekniken garapenerako *baimena eman dute*.

Baimendu

- Ikertzen ari garen kolektiboaren ikuspen oso gerturako *aukera ematen digu* horrek.
- *Sekuentziadorearen bidez*, genoma bera irakur daitezke, eta birus bakoitzean agertzen diren genotipoak aztertu.
- Guztiz integratutako gehigarri kudeatzaileak *bidea ematen du* beste batzuek garatutako gehigarriak ere ikusi, kudeatu eta ezgaitzeko.
- Giza genoma deszifratzeko ahaleginek, polimorfismo genetiko berrien eta analisietarako ikuspuntu antropogenetiko batetik ahalmen handia duten tekniken garapena *ahalbidetu dute*.
 - Giza genoma deszifratzeko *ahaleginei esker*, ...teknikak garatu dira.

Usaindu

- *Tropiko aldeko arbola baten fruitua da, eta *oso ongi usaintzen du*.
 - Tropiko aldeko arbola baten fruitua da, eta *oso usain ona (gozoa) du*.
 - Tropiko aldeko arbola baten fruitua da, eta *oso usain ona (gozoa) dario*.

- *Hartzitutako soja-haziekin egiten da Natto-a, eta *gaizki usaintzen du*.
 - (...) eta *usain txarra du*.
 - (...) eta *usain txarra dario*.

- Erleek laranja-lorea *usaindu zuten*.
 - Erleek laranja-loreari *usain egin zioten*.

- Arrainak hozkailuan sartu ezean, *usaindu egingo dira*.
 - (...) kirastu egingo dira.

Ezagutu

- *60ko hamarkadan industria alorrak hazkunde handia *ezagutu zuen*.
 - 60ko hamarkadan industria-alorrak hazkunde handia *izan zuen*.
 - 60ko hamarkadan asko *hazi zen* industria-alorra.
- *Industriak garapen handia *ezagutu du* XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera.
 - Industriak, berriz, garapen handia *izan du* XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera.
 - Industria nabarmen *garatu da* XX. Mendearen bigarren erdialdetik aurrera.
- *Eagles taldeak arrakasta handia *ezagutu zuen* kantu honekin 70eko hamarkadan.
 - Eagles taldeak arrakasta handia *izan zuen* kantu honekin 70eko hamarkadan.
 - Eagles taldeak arrakasta handia *lortu zuen* kantu honekin 70eko hamarkadan.

Ikasi

- Zelula-mintzaren egitura *ikasi* behar izan dugu, bihar azterketa baitugu.
- Dagoeneko, bost ikasgai *ikasi* ditut.
- *Zelularen mintza *ikasi* zuten, eta haren barne-egitura berezia zela ondorioztatu.
 - Zelularen mintza *aztertu* zuten, eta haren barne-egitura berezia zela ondorioztatu.
 - Zelularen mintza *ikertu* zuten, eta haren barne-egitura berezia zela ondorioztatu.

Mugatu

- (?) Ikertzaile bakar baten ustea aipatzera *mugatu gara*, gure irudiz egokiena.
 - Ikertzaile bakar baten ustea aipatu baizik ez dugu egin, gure irudiz egokiena.
- (?) Kalte-ordainak ematera *mugatu dira*.
 - Kalte-ordainak eman besterik ez dute egin.
- (?) Bankuak politika neoliberalak aurrera eramatera *mugatzen dira*.
 - Munduko Bankuek ez dute besterik egiten politika neoliberalak aurrera eraman baizik.
- (?) Hauetako hitz asko herritarren erabilerara *mugatzen dira*.
 - Hauetako hitz asko herritarrek bestek ez ditu erabiltzen.



Agurtu



*Besterik gabe eta aurretik eskerrak emanez, *agurtzen naiz*.

- Besterik gabe eta aurretik eskerrak emanez, *agurtzen zaitut*.
- Besterik gabe eta aurretik eskerrak emanez, *agur*.

*Adeitasunez, *agurtzen naiz*.

- Adeitasunez, *agurtzen zaitut*.
- Adeitasunez, *agur*.

*Nire eskaria ondo hartuko duzulakoan, *agurtzen naiz*.

- ...hartuko duzulakoan, *agurtzen zaitut*.
- ...hartuko duzulakoan, *agur*.

